

28-tik 4-era

36485

Urriaren 28: Bilbo-ko manifesta-
zioa.

Azaroaren 4: Martin Villa eta
Gutiérrez Mellado Euskal Herrira.

Astebete eskas pasa, eta horra hor
uso zurien ibilaldiaren ondoko ondo-
riak agertzen hasiak.

Martin Villa: poliziaren buruzagia.

Gutiérrez Mellado: armadaren buru-
zagia. Eta nor ikusi dute Donostian

eta Bilbon? Kasernak, komisari-
etxeak, polizietan buru egiten duten

50 sailburuak, gobernariak. Martin
Villak 15 puntu "gogor" ekarri ditu

"gogor" hitz hau Ministeritzan ber-
ri erabili da, eta ez "Anaitasuna"-

ko idazkaritzan). Hitz batez: *indar*

harmatuetan agintea duten bi gizo-
nak etorri dira Euskal Herrira; eta ez

diplomatikoak edo antzekoak.

Eta bertan, *kasernak eta komisa-
riak* ikusi dituzte, eta ez *buruzagi*

abertzaleak. Hitz batez: hemen *egu-
rra* eman behar da, Madrilleren ustez;

eta "*terrorismoa*" *moztu*. Alegia,
egur emanez konponduko da euskal

arazoa; eta ez: euskal arazoari alda-

kuntza *politikoak* eginez, erauziko da
indar-bidea.

28-ko manifestazioa proposatu
zutenek, horretara, Madrille-ko
gubernuaren irizpidea indartu dute.

Denok bat, esaten zuten, euskal "te-
rrorismoa"ren kontra... Eta handik
astebetera hemen genituen kontra-
borroka hori zuzenduko dutenak...

Euskal "terrorismoa", ordea,
1839-an hasi zen (lehenago ere bai

Iparraldean, eta ez txirripaz). Eta eus-
kal "terrorismo" hori, ez da inoiz

eten. "Terroristen" artean, gaur arte

eta betidanik apaiz asko, eta baserri-
tar asko, eta gazte asko; eta, itxuraz

bederen, odol-egarri itxurarik ez duen

jende asko. Eta galdera berehala
dator inoren burura: ZERGATIK? Zer-
gatik *euskal* "terrorismo" azkengabe

hori? Zergatik ez gauza bera Mur-
cian, Badajozen eta Leonen? Hauxe

da lehendabizikorik Madrillek aztertu
behar lukeena. Baina ez du egiten.

Berriro ere, uso zurien eramaleen
baimenez honetakoan, *egur* ematea

erabaki du. Eta *egur hutsa*: Irrati-



Dekretua, Arrate-Irratia debekaturik,
elebitasun-dekretua lehenago Gali-
ziari guri baino, eta abar. Eta euskal
"terrorismo"aren arazoa ez da horre-
la konponduko. "Pogrom" nabarmen
batez-edo ezpada.

Txillardegia

